

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK
Ospitalizazioko Unitatea – KIRURGIA BASKULARRA
Dei egin behar baduzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA

ARAU OROKORRAK GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzue, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitateetik borondatez irtetekotan, eskatzen dizugu **osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea**, laguntza asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzue. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduinak edo lur gabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inori buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalen inguruko ardurarik.

INTERBENTZIOA BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA



- Interbentzioak irauten duen bitartean gelan edo igogailu-gunean egon zaitezke.
- Interbentzio ondoko informazioa telefono bidez egiten da, erreferentzia gisa utzitako telefono-zenbakian.
- Anestesia ondoko bizkorketa ABUan egiten da, ebakuntza-gelan.
- Kirurgia programatuta badago, pazientearen kokapena SMS bidez jakinaraziko da.

MEDIKUAREN BISITA ETA SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA



- **Egunero 10:00etatik 14:00etara.**
- Pazientearen eboluzioari buruzko informazioa bisita egin bezain laster ematen da.

OTORDUAK



09:15ean Gosaria
 13:15ean Bazkaria
 17:00etan Askaria
 20:15ean Afaria

BISITAK

- 15:00etatik 22:00etara, astegunetan.
 - 08:00etatik 22:00etara, larunbat eta igandeetan
 - **Gehienez PERTSONA 1 paziente bakoitzeko.**
- Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

BESTE JAKIN BEHARREKO BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA

Une jakin batean beharrezkoa izango da senitartekoren baten presentzia, alta ondoko zainketak nola egin ikasten laguntzeko.



Ospitaleratzearen egiaztagiria (enpresarako, oheburuko medikuarentzat edo senitartekoentzat), Harrerako Unitatean jasotzen da, beheko solairuan, sarreran.



TXAGORRITXUKO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

08:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono-zenbaki honetara deituta: 945000882. **Kanpora deitzeko, logelatik** telebistako txartelaren bidez ere dei dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzue tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik; hortaz, berriro erabil daitezke. Matxuraren bat gertatu edo zerbait behar izanez gero, deitu 1422 luzapenera edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista- eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke eta.



KAFETEGIA: Orduategia: 07:30etik 22:00etara. KAFETEGIA ERDISOTOAN DAGO.

Solairu batzuetan kafe- eta freskagarri-makinak daude, hain zuzen ere, igogailuak dauden hall-ean.



OSPITALEKO ALTA: Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senitartekoren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA:

Harremanetarako telefono-zenbakia: **618 75 14 15.**